

## BERRI OROKORRAK

2019ko urtarrilaren 25ean 17. zenbakia



### Euskaraz Bizi!!!!

#### Hizkuntza-ohiturak aldatu nahi al dituzue?

Soziolinguistikako klusterrak hizkuntza-ohiturak aldatu zituzten bikotekideekin eginiko ikerketaren azken zatiarekin goaz. Aldaketa eman zuten bikotekideei baliagarriak suertatu zitzaizkien gakoak aipatuko dizkizuegu.

1- Zergatik aldatu edo zerk mugitu zituzten/ Motibazioak.

2-Zailtasunak.

3-Estrategiak.

#### **4-Gakoak**

##### **4.7.- Seme-alabetatik bikotera, nekez**

Behin, seme-alabak jaio direnean, bikoteko harreman-hizkuntza aldatzea jaio aurretik baino askoz zailagoa dela aipatzen da.

##### **4.8.- Ez dute aldatu seme-alabengatik (bakarrik), baina ohitura finkatzen lagundu dute**

Bikote horietako askotan, beraien arteko euskarazko ohitura finkatzen eta indartzen lagundu du seme-alabak izateak, horiekin, gehienek, erabateko euskarazko harremana izan baitute.

##### **4.9.- Prozesu bakoitza, mundu bat**

Bikote batzuen kasuan, biharko harremana euskaraz izatea beti irudikatu izan duten zerbait da, beste batzuetan, aldiz, helburu horretatik oso urrun zeuden hasieran. Harreman bakoitzaren bilakaera konplexua da, eta hainbat gertaerek baldintzatzen dute prozesu hori.

#### 1.-Bihar ate irekiak.

2019/20 ikasturteko matrikulazio-kanpaina dela eta, **bihar** larunbata, goizeko **10:30ean ikastolako jangelan** ate irekien egunari ekingo zaio.

#### 2.-Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data.

**Urtarrilaren 30ean** izango da hurrengo Artezkaritza Kontseiluaren bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, [artezkaritza@udarregi.eus](mailto:artezkaritza@udarregi.eus) helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.

#### 3.-2019/20 ikasturterako matrikula-kanpaina.

Jakinarazten da **urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra** (biak barne) izango dela **2019-2020 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurre-matrikulatzeko epea.**

**Ate irekien eguna urtarrilaren 26an** izango dugu 10:30ean eraikin berrian (Alperroburu, 5 kalean). Bertan, ikastolako funtzionamendua azalduko da eta ikastolan zehar ibiliko gara eraikuntza ikusiz. Animatu zaitetz!

**Udarregi ikastolak** zera eskaintzen dizue:

- ✓ **0 urtetik 16 urtera** bitarteko irakaskuntza arautua.
- ✓ **Heziketa euskalduna:** euskaraz ikasiz eta biziz, Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgilduz.
- ✓ **Balore eta jarrerren** lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- ✓ **KiVa Ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean 2017ko urtarriletik aurrera beste 57 ikastolekin batera.
- ✓ **Irakaskuntza Eleanitza:** D eredu, ingelesa 4 urtetik aurrera, gaztelania Lehen Hezkuntzaren 2. mailatik aurrera, eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- ✓ **Hizkuntzetarako irakasle** espezialistak.

- ✓ **Orientazio Departamendua:** tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- ✓ **Heziketa behar bereziak** dituztenentzat Laguntza-Gela.
- ✓ **Informazio eta Komunikazio-Teknologiak:** Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- ✓ **Garraio** zerbitzua.
- ✓ **Jangela:** Bertan prestatutako garaian garaiko janaria, herriko elikagaiak eta elikagai ekologikoak. Dieta orekatuak eta osatuak.
- ✓ **Eskolaz kanpoko jarduerak:** kirolak, dantza, xake, antzerkia.
- ✓ **Ikasleen goizeko zaintza:** 08:00etatik 09:00etara. Irailean eta ekainean **arratsaldeko zaintza** ere bai, 14:30etik 16:30era.

Eta aurreko guztiaren euskarri gisa:

- **50 urteko esperientzia** Usurbilen.
- **Irakasleria** egonkorra eta berrikuntza pedagogikoez arduratua.
- **Gestio demokratikoa:** guraso eta langileen partaidetza zuzena arlo guztietan.
- **Erakunde** irekia, anitza eta iritzi guztietara zabalik. **Herri Onurako Kooperatiba. Guraso Kooperatiba.**
- **Kalitatezko Hezkuntza** lortzen lagunduko digun Kalitate Aurreratuaren Kudeaketa Sistemarekin konprometituta.

Informazio gehiago izan dezazuen, honakoa kontuan har ezazue:

<b>Ate irekien eguna</b>
○ <b>Urtarrilaren 26an, 10:30ean ikastolako jangelan</b>
<b>Matrikulatzeko epea</b>
○ <b>Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra</b> (biak barne)
<b>Matrikulatzeko ordutegia</b>
○ Aldez aurretik <u>Ikastolara</u> deituz, ordua adosteko <u>(943-361216)</u> <b>(3 urtetik-16urtera)</b>
<b>Matrikula gauzatzeko ekarri beharreko agirien fotokopiak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Udaleko bizikidetzaz-ziurtagiria</li> <li>○ Familia-liburua</li> <li>○ Gurasoen NAN</li> <li>○ Gizarte Segurantzako txartela</li> <li>○ Kontu korrante baten zenbakia (IBAN eta BIC kodeak)</li> <li>○ Haurren argazki bat</li> </ul>

### **3.-Elikadura eta psikologiaren inguruko tailerra.**

Hitz-aho guraso-elkarteak elikadura eta psikologiaren inguruko bi tailer antolatu ditu.

- **HH2 eta LH4** bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta:

Otsailak 7: gosari eta askari osasuntsuak. Ikastolako sukaldea erabiliko da.

Otsailak 14: gozo osasuntsuak. Ikastolako sukaldea erabiliko da.

Otsailak 21: elikadura neofobia eta elikadura emozionala. Psikologia hitzaldia.

- **LH5 eta DBH4** bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta:

Otsailak 28: afari erakargarriak. Ikastolako sukaldea erabiliko da.

Martxoak 7: gozo-osasungariak. Ikastolako sukaldea erabiliko da.

Martxoak 14: elikadura nahasteen prebentzioa eta *mindfulness eating*. Psikologia hitzaldia.

**Ordua:** 17:00etatik 19:00etara.

**Non:** Lehenengo bi saioak ikastolako sukaldean. Hitzaldia Udarregi eraikinean.

**Izen-ematea eta ordainketa:** urtarrilaren 31 bitarte.

Ordaindu beharrekoa: 20 €. Euskadiko kutxa ES72 3035 0140331400024098.

Plazak mugatuak dira.

# OHARRAK ETAPAKA



HE

Ez dago berririk.



HH

## 1.-HH 3ko familiei zuzendutako bilera pedagogikoa.

HH 3ko familiei zuzenduta, bilera pedagogikoa egingo dugu.

Noiz? Otsailaren 5ean, arratsaldeko 16:45ean.

Non? Seme-alabaren gelan.

Oharra: zaintza zerbitzua egongo da.

## 2.-Santa Ageda bezpera.

Otsailaren 4an, astelehena, **Santa Ageda bezpera** ospatuko dugu. Horretarako, arratsaldean, haurrek **baserriarrez jantzita** etorri behar dute.

Arratsaldeko **16:00etan** LHko ikasleekin **herriko frontoian** elkartuko gara abesti batzuk kantatzera.

**Haurrak herriko frontoian jaso** beharko dituzue. **Autobusa** hartu behar duten ikasleek irakasleok arduratuko gara.

OHARRA: datorren astean makilak ekar itzazue, mesedez.



LH

## 1.-Ikasleen erosotasunerako.

Ikasleak gelan eroso egotea oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Konturatu gara, gehienbat egun euritsuetan, ikasleak ordu asko oinetako busti edo deserosoekin egoten direla. Horregatik ikasleei proposatu diegu, aukeran, ikastola barnean erabiltzeko oinetako erosoak ekar ditzaketela. Ikastola barnean dugun lurra ikusita, oinetako horiek zoladunak izatea komenigarria da.

## 2.-LH 4ko ikasleen irteera.

Datorren **asteazkenean**, urtarrilak 30, LH 4ko ikasleek Ordiziako azoka eta D´elikatuz museoa bisitatuko dituzte.



DBH

## 1.-DBH 4ko ikasleek saldutako txartel saritua.

DBH 4ko ikasleek ikas-bidaiarako ateratako Saizarren bi lagunentzako bazkari edo afarirako zozketaren zerbaki saritua **0524** izan da. Zorionak!

## 2.-DBH-ko ikasleen argazkia.

Udarregi Ikastolak Alexia programa erabiltzen du ikasleen kudeaketarako (matrikulak, notak,...). **Gurasoentzat App-a** prestatzen ari gara familiak informazioa zuzenean izan dezazuen, baina horretarako, ikasleen argazkia beharko genuke. Eskertuko dizuegu **ikaslearen argazkia** [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera bidaltzea edo idazkaritzara ekartzea ahalik eta azkarren, ikaslearen izen abizenak zehaztuz. Mila esker!